

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EMILE DUCHEMIN. GRENABLEKO UDAL LIBURUTEGIA.

TURISMOAREN HASTAPENAK BIARRITZEKO HONDARTZAN

Donostia, Hondarribia, Biarritz, Donibane Lohizune eta Euskal Herriko beste hainbat herri Europako helmuga turistiko garrantzitsu bihurtu ziren XIX. mendetik aurrera. Biarritze-ko argazki hau, ia koadro bat dirudiena eta estetika piktorikoa duena, estereoskopikoa da -eskuineko pareak bakarrik ekarri dugu orriotara-. Argazkia XIX. mendearen amaieran egin da, eta garaiko turismoaren isla garbia. Emile Duchemin (1862-1914) argazkiaren egilea «Societe dauphinoise d'amateurs photographes» elkartearen kide sortzaileetako bat izan zen. Argazki-elkarte hori oso aktiboa izan zen XIX. mendearen amaieran sortu zenetik, bere bazkideen zerbitzura estudio, laborategi eta liburutegi bana jarritz, eta argazki-txangoak, erakusketak eta lehiaketak antolatuz. Biarritzeko argazki hau, Iparraldeko beste batzuekin batera, Ducheminek egindako argazki-txangoetako batekoak dira. Duchemin autozalea ere bazen, eta «Automobile club dauphinois» elkartearen sortzaileetako bat izan zen, baita Grenobleko errepideetan ibili zen lehen gidarietako bat ere. Emile Ducheminen argazki-funtsa «Societe dauphinoise d'amateurs photographes» elkartearen eskuetan zegoen, baina 1940an desegin zenean Grenobleko udal liburutegiak jaso zuen.